

## “MUNDUKO HERRIAK MUNDUKO HAURREK MARRAZTUTA”

### PROIEKTUAREN INFORMAZIOA

- ZER DA?

Une honetan idazten nabilen liburua da *Munduko herriak munduko haurrek marraztuta*. Bertan, 5 kontinenteetako herrialde ezberdinetako marrazki eta hitzak bildu nahi ditut, bertako haurrek marraztuta eta beraiek edo beraien inguruko pertsonak idatzita, baina, beti ere, haurraren ikuspuntua kontutan hartuta. Haurrek haurrentzat egindako liburu bat izango da eta behin liburua egitearen lanak ordainduta, liburuaren salmentatik ateratzen den dirua munduko txoko ezberdinetako haurrei laguntzeko egitasmo ezberdinetara bideratuko da.

- ZEIN HIZKUNTZATAN IDATZIKO DA?

Atal nagusia (herrien marrazki eta azalpenak jasotzen dituena) herri horretako hizkuntzan (haurraren hizkuntzan, hizkuntza bat baino gehiago dagoen kasuetan), euskaraz eta ingelesez idatziko da. Liburuaren hasierako atala, sarrera gisa egiten duena, eta amaiera, euskaraz eta ingelesez.

- NORK PARTE HARTU DEZAKE?

Munduko edozein herritako haur eta gaztetxoek (6-17 urte), baina herrialde bakoitzetik batek soilik (herrialde ezberdinetakoei aukera emateagatik).

- ZER EGIN BEHAR DA PARTE HARTZEKO?

Haurraren inguruko heldu bat (gurasoa, irakaslea, zaintzailea, ...) nirekin harremanetan jarri [amaia@handitzen.eus](mailto:amaia@handitzen.eus) helbidera idatziz eta zein herrialdetatik parte hartu nahi duzuen adierazi. Herrialde horretako beste inor ez badago, baietz esango nizueke eta haurraren izen-abizenak, adina eta herriaren izena jasoko nituzke. Baita kontaktuko pertsonaren izen-abizenak eta emaila ere, harremanetarako.

- ZER DA LIBURURAKO EGIN BEHAR DENA?

Bi eginkizun daude: marrazkia eta marrazki horrekin zerikusia duen testu laburra.

1. Marrazkia:

- Haur edo gaztetxoak bere herriaren marrazki bat egin behar du.
- Nahi den teknika, kolore eta materialak erabiliz.
- Ahal dela orria horizontalean jarrita (gutxi gora behera A4, 210x297 mm.).

2. Testua:

- Adinaren arabera, haurrak berak edo kontaktuko pertsonak idatz dezake, baina bigarren kasu honetan, haurraren ikuspegia kontutan hartuta.
- Zer idatzi behar da? Bakoitzaren herriari buruzko testu bat, galdera honi erantzunez: *Zer kontatu nahi diezu munduko gainerako haurrei zure herriari buruz?*

- Zer hizkuntzatan idatzi behar da? Herri horretako hizkuntzan (hizkuntza bat baino gehiago bada, haurraren hizkuntzan). Nik gero euskarara eta ingelesera itzuli behar dut, baina kontaktuko pertsonak ingelesez eta/edo euskaraz baldin badaki eta testua ingelesez eta/edo euskaraz ere bidaltzeko aukera izango balu, laguntza izugarria litzateke niretzat, hainbat hizkuntza ez ditudalako ezagutzen eta itzultzaile ezberdinekin lan egin beharko ditudalako.
- Zer luzera izan behar du? Herri bakoitzari buruz 120-150 hitz inguruko testua jarri ahal izango dut, baina norbaitek luzeagoa egin nahi balu, atsegin handiz irakurriko dut guztia eta gero libururako hitz kopuru horretara laburtu. Zerbait laburtu edo aldatu beharrik balego, zuekin harremanetan egingo nuke. Beti, zuen oniritziaz.

- NOIZKO EGIN BEHAR DIRA MARRAZKI ETA TESTUAK?

2023ko martxorako, gero liburua moldatzen hasteko.

- NOLA BIDALI BEHAR DIRA MARRAZKI ETA TESTUAK?

Bi aukera daude: emailaz edo postaz.

Testuak:

1. Ahal bada emailaz, WORD edo PDF formatuan.
2. Testua eskuz idatzita balego, testuaren argazki bat emailaz edo testua bera postaz.

Marrazkiak:

1. Emailaz: argazki bidez (JPG formatuan), baina ez eskaneatuta. Oso garrantzitsua da argazkiek ahalik eta kalitaterik onena izatea, marrazki bakoitzak liburuen orrialde oso bat hartuko duelako. Horregatik, argazkia egun argitsu batetan eta ahalik eta kalitaterik onenaz ateratzea aholkatzen da.
2. Postaz, marrazkia bera bidalita. Marrazkiaren atzean haurraren izena, herria eta herrialdea jarri.

Nora bidali:

1. Emailaz [amaia@handitzen.eus](mailto:amaia@handitzen.eus) helbide elektronikora.
2. Postaz:

MHMHM  
152 posta-kutxa  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
BASQUE COUNTRY (Spain)

- HAURREN IZENAK AGERTUKO AL DIRA LIBURUAN?

Bai, marrazkien egiletza beraiena izango da eta kasu gehienetan testuarena ere bai. Liburuan haur parte-hartzaile guztien izen-abizenak eta adina jasoko dira. Hala ere, norbaitek nahiago balu haurraren izenik eta/edo adinik ez agertzea, jakinarazi diezaezadala eta bere nahia errespetatuko da.

Jasotzen ditudan marrazki eta testuak proiektu honetarako bakarrik erabiliko dira eta momenturen batetan beste erabilera ezberdin bat egitea nahiko balitz, egileari (kasu honetan haurrak izaki harremanetarako pertsonari) baimena eskatuko litzaioke.

- IZANGO AL DUTE PARTE-HARTZAILEEK LIBURUA ESKURATZEKO AUKERARIK?

Bai, liburua argitaratzen denean, parte-hartzaile bakoitzari liburuaren ale bat bidaliko zaio.

- NOIZKO ARGITARATZEA ESPERO DA?

Lan-bolumenaren eta finantzaketaren arabera egongo da argitaratze-data. Testuen itzulpenak egiteko itzultzaileen laguntza beharko dut eta dena esku-artean izan arte ezin dut datarik eman. Hala ere, aurki espero dut!

- BESTE ZALANTZARIK IZANEZ GERO, ZER EGIN?

Idatzi [amaia@handitzen.eus](mailto:amaia@handitzen.eus) zuzenbidera eta ahalik eta azkarren erantzungo dizut.

**ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK!**

Amaia Agiriano Arrese

Euskal Herrian jaio (Aretxabaleta, 1976) eta bertan bizi naiz senarrarekin eta bi seme-alabekin.  
Psikologoa, irakaslea eta arkitektoa naiz ikasketaz.

Azken urteotan, hezkuntza munduan dihardut lanean, adimen gaitasun handiko hurrekin, beren familiekin eta irakasleekin. Hala ere, arkitektura ere asko maite dut, eta noizean behin arkitekturarekin lotutako proiektuetan ere parte hartzen dut.

2021ean Handitzen zentroa sortu nuen, psikologia, hezkuntza, artea eta arkitektura uztartuz eta bertan lan egiten dut, ilusioz eta pozez.